
AUTOMOBIL ARINETAN BIDAIARIEN HIRI ETA HIRIARTEKO ZERBITZUEN UDAL ERREGELAMENDUA

Udalbatzarrak onartua 1980.12.30ean

I. KAPITULUA

Erregelamendu honen helburua

1. Artikulua.

Toki Jaurbideari buruzko Legearen 108 eta 109. artikuluetan eta Udalbatzen Zerbitzuetako Erregelamenduaren 5. eta 7. artikuluetan eta Automobil arinetan Garraioen Hiri eta Hiriarteko Zerbitzuen Erregelamendu Nazionalaren 1. Artikuluan ezarritakoaren arabera, Erregelamendu hau eman da, alokairuko automobil arinetan bidaiariak eramateko hiri eta hiriarteko zerbitzua erregulatzeko.

2. Artikulua.

Erregelamendu honek aipatzen dituen zerbitzuak Auto-turismoaren modalitatean ezarri dira, baina udalerrriak beharrak izanez gero, martxoaren 16ko 763/1979 Errege Dekretuak onarturik automobil arinetan garraioaren hiri zerbitzuen erregelamendu nazionalako 2. artikuluan datozen gainerako modalitateak joango dira ezartzen. Auto-turismo zerbitzua haxe da, gidariak eta kontagailu taximetrorik gabe alokairuko automobil arinek herri artean hirigunean edo hortik kanpo ematea, eta horretarako udal tarifak edo nazio eremuko tarifak ezarriko dira, hirikoa zerbitzua edo hiriarteko zerbitzua izan.

II. KAPITULUA

Ibilgailuak, haien jabetza eta zerbitzua emateko baldintzak

1. Sekzioa – Arau orokorrak

3. Artikulua.

Erregulatzen diren zerbitzu publikoak emateko ahalmena ematen duen udal lizentzia honen izenean egon behar du, Probintziako Trafiko Burutzaren Erregistroan ibilgailua zeinena den haren izenean.

Ibilgailuen jabeek, zerbitzuan jarri baino lehen, indarrean dauden xedapenek eskatzen dituzten aseguruak eduki behar dituzte, eta baldintza hori bete barik, ezingo dira egin lizentzia horiek.

4. Artikulua.

Erregulatzen den jarduera egiteko udal lizentziaren titularrek lizentziara adskribatutako ibilgailua aldatu ahal izango dute beste berri batzez edo kondizio hobeak dituen batez, beti ere Erregelamendu honek eskatzen dituenak betetzen baditu eta Udalaren baimena lortzen badu.

5. Artikulua.

Halako ibilgailuen eskualdaketa egintza inter vivos egintzagatik, ibilgailu horiek daukaten udal lizentzia gorabehera, lizentzia hori deuseztatzea dakarte horrekin batera, eskualdaketa egin eta hiru hileko epean eskualdatzaileak lizentzia hori bere jabetzakoa den beste

automobil bati ezartzen ez badio behintzat, eta hori guztia egiteko, aurreko artikulua aipatzen duen baimena lortu eta gero.

6. Artikulua.

Ibilgailu guztiek eramango dute haizetakoan, gidariaren beste aldeko goiko angeluan eta, gainera, atzealdeko kristalean, bere lizentziari dagokion ordena zenbakia, Udalak adieraziko dien ereduaren arabera. Halaber, herriko armarrria eraman behar dute atean.

7. Artikulua.

Ibilgailuak uneoro egongo dira egoera onean ibiltzeko eta haien itxura ondo baino hobeto zainduko da, eta zirkulaziotik kendu ahal izango dira egoera onean ez daudenak.

8. Artikulua.

Ibilgailuen tapizatua behar bezala egongo da, ipinki eta akats barik, garbi ez dauden itxura eman barik. Ahalegina egingo da tapizatua kolore batekoa izatea osoa. Ezingo da erabili, kalitate, itxura, marrazki, e.a.engatik, ibilgailuentzat desegokiak diren fundak. Lurreko alfonbrak gomazkoak izango dira ahal dela, eta garbi egongo dira.

Ibilgailu guztiak lau atekoak izango dira, eta doitu egingo dira horiek, leihoetako kristeletakoak bezalaxe, uneoro haizea edo euria barrura sartzen ez uzteko modukoak. Itxigailuak eta kristal jasogailuak erraz ibiliko dira, eta indar handi barik ibili behar dira.

Leihoetako, haizetako eta bereizteko kristalak segurtasun izenekoak izango dira, tenplean fabrikatuak; segurtasuneko txiki-txikiezinak, haien fabrikazioagatik gardentasuna galdu eta ikuspena galarazten dutenak, aldatu egin beharko dira Agintaritzak hala eskatzen duenean. Ibilgailuek haizetako garbigailua izango dute eta ispilu bat egoera onean. Argien ekipoa, barrukoa nahiz kanpokoa, egoera onean egongo da ibiltzeko.

9. Artikulua.

Alokairuko autoak gutxienez hiru hilean behin desinfektatu behar dira eta Alkateak hala agintzen duen guztietan, osasun txostena egin eta gero.

10. Artikulua.

Ibilgailu guztiek lizentzia eta gelditu seinalea eramango dituzte, eta, halaber, eramango dituzte Erregelamendu honen ale bat, ibilgailuaren zirkulazio baimena, indarrean duen aseguru poliza eta prezioen tarifa, onartu eta indarrean dagoena; prezio horiek bidaiariak ikusteko moduan egongo da jarrita, zuzenean kontsulta dezaten zenbat balio duen zerbitzuak.

Halaber, agerian eramango du plaka bat, eta hor jasota joango dira zenbat bidaiari eraman dezakeen eta autoaren matrikula zenbakia.

11. Artikulua.

Ibilgailu guztiek erreklamazio, kexa edo salaketa liburu bat eramango dute jendearen eskura, Udalak zigilatu eta aztertuko duena. Betebehar hori bete ezean edo eskatu duen bidaiariari eman ezean, hutsegite larritzat joko da. Hutsegite hori behin eta berriro eginez gero, gidatzeko agiria kenduko zaio.

12. Artikulua.

Albizkako ikuskapen ziurtagiri bat eraman behar dute ibilgailuek begi-bistan, Industria Ministerioaren Probintziako Ordezkaritzak ikus-onetsirik. Udalean urteko ikuskapen egiteko

aurkeztuko dira ibilgailuak, eta une hartan ordainduko dute udal tasa, autoa pasatzeko ematen badute, ondo zainduta, itxura onaz eta garbi dagoela egiaztatzeko nahiz eduki behar duten dokumentazioa egiaztatzeko.

Alkatetzak ere edozein unetan agindu ahal izango du ibilgailu guztien edo batzuen aparteko azterketa bat, baina kasu horretan ez du Udalak ezelako tasa edo eskubiderik kobratuko.

13. Artikulua.

Erregelamendu honetan eskatzen diren erosotasun edo seguritate baldintza teknikoak betetzen ez dituzten automobilek ezingo dute eman berriro zerbitzurik, aldez aurretik aztertu barik akatsa agerian jarri zuen Erakundeak edo Agintariak, eta azterketa horretan egiaztatu behar da izandako akatsa konpondu dela, eta hala egin ezean hutsegite larritzat joko da.

14. Artikulua.

Udalak erreserbatu egiten du halako auto eredua edo mota eskatzeko ahalmena.

15. Artikulua.

Erregelamendu honi lotutako ibilgailu automobilek luxuko zerbitzuak izan ahalko dute, adibidez, irrati aparatuak, baina autoa alokatu duen bidaiariak gura ez badu, ezingo dute ibilbideetan piztu.

2. Sekzioa - Lizentziak

16. Artikulua.

Erregelamendu honetan aipatzen den zerbitzua emateko, dagokion udal lizentzia lortu behar da aurretik.

Udalari egokituko zaio hura ematea.

17. Artikulua.

Uneoro dauden bakanteak Udalak beteko ditu lehiaketa baten bidez.

18. Artikulua.

Lizentzia izateko interesa dutenek Udalari eskatu beharko diote, lehiaketaren iragarkia argitaratu eta gero. Datu hauek agertu behar dira:

Jabearen izen-abizenak eta helbidea, eta egiaztatuko ditu norena den ibilgailua, potentzia, matrikula, marka eta modeloa, motorearen zenbakia eta deialdian eskatzen den beste edozein.

19. Artikulua.

Lizentzia hauetako titular izan ahalko dira bakarrik zerbitzua eurek zuzenean ustiatzeko konpromisoa hartze duten pertsonak, baldin eta Arrasateko erroldan badaude, gutxienez urte batean. Salbuespenez baimena eman ahal izango du Udalak, gorabehera bereziak izanez gero, soldatapeko langileak erabiltzeko.

20. Artikulua.

Lizentzia hauen kopurua ez da mugatua izango aldez aurretik, baina Udalak emango ditu jendeari eman beharreko zerbitzua behar bada edo komeni bada, martxoaren 16ko

763/1979 Errege Dekretuak onartutako automobil arinetako Hiri Zerbitzuen eta Hiriarteko zerbitzuen Erregelamendu Nazionalaren 11. artikuluan aurreikusitako moduan egiaztaturik.

21. Artikulua.

Lizentziak ezin izango dira eskualdatu, kasu hauetan izan ezik:

- a) Titularra hiltzen denean, alargunaren alde edo haren oinordeko legitimoen alde.
- b) Lizentziak jarduera bakar eta eskusibo moduan ustiatzerik ez duenean alargunak edo ez dutenean oinordeko legitimoek, eta Udalak soldatapeko gidarien alde baimena eman eta gero. Edozelan ere, lehentasunez erosteko eskubidea izango du gidatzeko tokiko baimenaren jabe den beste edozein oinordekok.
- c) Autoaren jabea eta lizentziaren titularrak ezin duenean, gaixorik dagoelako, istripua izan duelako edo ezinbesteko beste kausa batengatik, eta haren ezkontidearen edo seme-alaben alde eskualdatuko da halakoetan.

Aurreko atalak hautsiz egiten badira eskualdaketak, Udalak errebokatu egingo du lizentzia, ofizioz hasitako espedientea izapidetu eta gero, sindikatuek, lanbide elkarteek edo beste edozein interesdunek eskaturik.

22. Artikulua.

Titularrek agerian izan behar dituzte udal lizentziak, agintariek hala eskatzen dietenean, eta aldean eraman behar dituzte zerbitzua ematen dutenean.

23. Artikulua.

Lizentzia guztiak baldintzaturik egongo dira, haien eragingarritasunari dagokionez, Erregelamendu honek eskatzen dituen baldintzak betetzera ibilgailuek.

24. Artikulua.

Udal lizentzien titularitatea galduko da:

- a) Lizentziaren titularrak berariaz uko egin duelako.
- b) Kontzesioaren izaera pertsonalak galdu direlako.
- c) Horien obligazio zehatzen bat bete ez delako.

25. Artikulua.

Udalak lizentzia kendu ahal izango honelako kausengatik:

- a) Urte bateko aldian 30 egunean edo 60 egunetan ez ematea zerbitzurik jendeari, arrazoibiderik egiaztatzen ez badio idatziz Udalari.
- b) Hitzartutako lizentziaren titularrak ez edukitzea indarrean aseguru poliza.
- c) Aldizkako azterketari buruzko xedapenak ez betetzea behin eta berriro.
- d) Erregelamendu honek baimentzen ez duen ustiapena dakarrenean lizentzia errentan eman, alokatu edo ahalordetzeak eta erregelamenduak baimentzen ez dituen lizentziak transferitzea.
- e) Ibilgailuaren jabetzari buruzko lizentziari eta gainerako xedapenei datxekzien obligazioak ez betetzea.
- f) Soldatapeko langileak kontratatzea, Udalaren baimen barik.

26. Artikulua.

Baliorik gabe geratuko dira lizentziak honelakoetan: ibilgailuak hartarako moldatu eta edozein arrazoiengatik ibilgailua kendu dutenean, eta gehienez ere 3 hileko epea emango zaie, baja eman dioten egunetik kontatzen hasita, aurreko ibilgailua beste batez aldatzeko.

27. Artikulua.

Lizentzia eman eta gero, titularra beharturik dago zerbitzua ematera 60 egun naturaleko epean, lizentzia ematen denetik kontatzen hasita, eta aldi hori igarotakoan iraungi egingo du lizentziak.

28. Artikulua.

Emandako lizentzien erregistro edo fitxategi bat eramango dute udaletxean; titularrei edo haien ibilgailuei buruzko gorabeherak jasoko dira hor, hala nola, ordezkapenak, istripuak, santzioak, e.a.

Datu hauek jasoko dira erregistro horretan:

- a) Jabearen izen-abizenak eta helbidea, helbideko telefono zenbakia eta dagokion geltokiaren lekua.
- b) Auto bakoitzaren matrikula zenbakia, motor zenbakia eta marka eta motorraren potentzia.
- c) Ibilgailuaren jarleku kopurua.

29. Artikulua.

Halaber, taxi zerbitzuari buruz aurkezten diren erreklamazio guztiak jasoko dituen erregistro bat eramango dute.

3. Sekzioa – Zerbitzuaren antolaketa

30. Artikulua.

Geltoki hauetan banatuko dira ibilgailuak:

- 1. Toribio Agirre
- 2. Sortzekoa

Aldatu, gehitu edo gutxitu egin daitezke geltoki horiek, Udalak dioenaren arabera, zerbitzuaren komenigarritasuna ikusita.

31. Artikulua.

Taxidun guztiak behartuta egongo dira egitera gutxienez astean 43 orduko lan jarduna, eta eskubidea izango dute astean atseden egun bat izateko.

Zerbitzua egunero emango dute, gutxienez, taxidunen %50ek, eta geltokietan goizeko 8:00etatik gaueko 10:00ak arte egon behar dute.

Taxidunen artean gauez zerbitzua emateko txanda ezarriko dute (gaueko 10:00etatik goizeko 8:00ak arte), eta aldeztu aurretik Udaltzaingoari emango zaio horien berri.

Eguraldiaren gorabeherengatik automobilak kaltetu ez daitezen, ezta taxidunak ere haien atseden garaian, zaintza zerbitzuen lekuan iragarki taula bat jarriko da geltokietan, eta han adieraziko dira hilez hileko txanda osoak, beti ere telefonoa egonez gero geltokietan eta taxidun guztiak agertuz gero iragarki taulan haien telefonoaz, jakiteko nora deitu.

Gremioaren Ordezkariari egokituko zaio txandak antolatzea, eta Udaltzaingoari emango die horien berri.

32. Artikulua.

Zerbitzuan duen antzintasunaren arabera, alokairuko autoen zerbitzurako lizentziek gehien komeni zaien geltokia aukeratu dute, eta horietako bat hutsik geratzen denean, antzintasun ordena beraz hartuko dira horiek.

33. Artikulua.

Zerbitzua herritik kanpo eman behar duelako, 24 orduko gora kanpoan egonez gero taxiduna, Udaltzain buruari adierazi beharko dio eta haren baimena izan behar du, eta taxiduen nahitaez eduki behar duten irteeren liburuan jasoko da hori.

34. Artikulua.

Oinarri nahikoa duen edozein arrazoirengatik (gaixorik, istripua, matxura edo ezinbesteko beste kausa bat) ezin badu joan taxidunak berari egokitutako geltokira, egun jakin batean, 24 orduko epean justifikatuko du, udaltzain buruari bidalitako orri baten bidez.

35. Artikulua.

Lerroan jarriko dira geltoki bakoitzean alokairuko zerbitzu publikoko autoak, iristearen ordenan.

Zerbitzua eskatzen duten bidaiariek geltokiaren ordena errespetatuko dute, 25 km-tik beherako bidaiak direnean, eta 25 km-tik gorako bidaiak egiteko eskatzen denean zerbitzua, geltokia osatzen duten autoen artean nahi duena aukeratu ahal izango dute, jarri dauden ordena kontuan hartu barik.

36. Artikulua.

Alokairuko zerbitzu publikoko autoak jarri ahal izango dira ikuskizun lekuetako irteeretan, halako ekintzak egiten diren lekuen inguruetan, zirkulazioa oztopatu barik.

37. Artikulua.

Dagokien geltokiak haien artean trukatu ahal izango dituzte autoetako jabeek, eta udaltzainburuari emango diote horren berri.

38. Artikulua.

Automobil guztiak, dagokien geltokian daudenean, libre daudela hartuko da eta lehen eskatzaileak erabiltzeko moduan daudela.

39. Artikulua.

Libre dauden autoak kaletik zirkulatzen dabiltzanean, halaxe daudela adieraziko diote jendeari, eta ikusteko moduko leku batean "libre" adierazgarria jarrita eramango dute, eta gaez adierazgarri horixe eta argi berde bat autoaren eskumaldeko aurrealdean.

40. Artikulua.

Geltoki bakoitzean telefonoa jarri behar da nahitaez, eta hura jartzea eta zaintzea Gremioaren kontura doaz.

Geltokiko telefonoaren zenbakia behar bezala iragarri behar da, herri prentsan nahiz beste hedabide batzuetan, taxidunen aldetik, zerbitzua jendeari errazteko eta batez ere telefono gidan etorriko da honela: taxiak,-ko geltokia.

Aurrez esandakoarekin lotura estuan debekatu egiten da taxidunek haien kabuz agertzea telefono gidan nahasmena sor dezaketen iragarkiak eta horren arabera, edozein iragarki jarri nahi badute, lehenengo Udalak onetsi beharko du.

Auzo bakoitzean, iragarki taulan egongo da, eta han agertuko dira egunero taxien guardia zerbitzuaren berezitasun guztiak.

4. Sekzioa - Tarifak

41. Artikulua.

Ematen dituzten zerbitzuen truke, tarifa bakarrak ezarri ahal izango dituzte alokairuko ibilgailuetako jabeek, eta horiek Erregelamendu honetako eranskinean datoz jasota.

Tarifa horiek ezarri aurretik, sektoreko ordezkari diren enpresari eta langileen lanbide elkarteei eta kontsumitzaileen elkarteari eta erabiltzaileei entzungo zaie hamabost laneguneko epean.

Tarifak igotzeko, abuztuaren 27ko 2226/1977 Errege Dekretuan eta 1977ko irailaren 30eko Barne Ministerioaren Ordenan ezarritako tramiteak bete behar dira.

III. KAPITULUA

Zerbitzuko den langileria

1. Sekzioa – Baldintza orokorrak

42. Artikulua.

(Gidatzeko baimen agiria) Gidatzeko udal baimena duten pertsonak gidatu beharko dituzte alokairuko zerbitzu publikoaren ibilgailu guztiak. Eskabidea egin eta gero emango dute baimen hori, alkatetzara bidalita eta hemen aipatzen diren arauen arabera:

1. Eskabidean izen-abizenak eta helbidea jaso behar dira.

2. Eskabidearekin batera hauek aurkeztuko dira:

- a) Lehen klaseko automobilen gida baimena, probintziako Trafiko burutzak emanda, eta zenbakia eta noiz emandakoa den adieraziko da.
- b) Lanbidean normal jardutea uzten ez duen edo zailtzen duen gaixotasun infekzio-kutsakorra edo eragozpen fisikorik ez izanaren ziurtagiria.
- c) Zirkulazio Kodeak edo Trafiko Burutzak eskatzen duen beste edozein baldintza.

43. Artikulua.

Alkatetzak emango du gidatzeko baimena, aurkeztu den dokumentazioa eta Barne Araubideko batzordearen diktamenaren arabera.

2. Sekzioa – Zerbitzua emateko era

44. Artikulua.

Zuzenean edo telefonoz zerbitzua egiteko eskatzen diotenean, gidariak ezingo dio ezetzik esan, arrazoi zuzenik ez badu.

Besteak beste, arrazoi zuzentzat hartuko dira:

- a) Ibilgailuak baimendurik duen plaza kopurua baino pertsona gehiago eramateko eskatzen diotenean.
- b) Bidaiarietako edozein drogen eraginez intoxikaturik dagoenean, udaltzainek eskatzen ez badiote zerbitzua egiteko, edo haren bizia edo osotasun fisikoa arrisku larrian edo berehalakoan dagoenean izan ezik.
- c) Bidaiarien jantziek, paketeek, ekipajeek edo eramaten dituzten animaliek ibilgailuaren barrualdea zikindu, hondatu edo kaltetu egiten dutenean.
- d) Zerbitzua eskatzen duen pertsonak aurreko beste bidaia batzuk zor dizkienean, beti ere aldezturik udaltzaingoari horren berri emanez gero eta zordunari eskatuz gero ordaintzeko eta uko egin izanez gero eskaera horri.
- e) Zirkulatzeko modukoak ez diren bideetatik zerbitzua emateko eskatzen diotenean, bidaiarien eta gidariaren nahiz ibilgailuaren segurtasun eta osotasunerako arriskua dutenean.

Edozelan ere, jendearekin portaera egokia izango dute gidariek eta, erabiltzaileak eskatu eta zerbitzurik ez dutela emango adieraziz gero, justifikatu egin beharko diote udaltzain bati.

45. Artikulua.

Lizentziaren titularrak gidatuko du beti ibilgailua.

46. Artikulua.

Gidariek astiro gidatuko dituzte autoak, eta zerbitzu bakoitzean ibilbide laburrena jarraituko dute, bidaiariak bestelakorik adierazi ezean, eta zirkulazioko arauak eta seinaleak jaramon egingo die uneoro, bai eta udaltzainei ere.

47. Artikulua.

Gidariek ezingo dute galarazi bezeroek autoan mailetak eta ekipajeko beste pakete batzuk eramatea, beti ere ibilgailuaren parrillan edo ekipaje lekuan sartzen badira, eta hondatzen ez badute, edo horien bidez indarrean dauden arauak edo xedapenak hausten ez badituzte.

48. Artikulua.

Alokairuko zerbitzu publikorako den ibilgailuen gidari guztiek hauek eraman eta erakutsi beharko dituzte udaltzainen aurrean, haiek eskatzen dizkieten guztietan, Erregelamendu honetako 10. artikulua eskatzen dituen agiriez gain, Udalak egindako gidatzeko agiria.

49. Artikulua.

Ibilgailuaren barrualdean erabiltzaileei ez erretzeko gomendio kartel bat eraman ahal izango dute gidariek, beti ere hiri zerbitzuak bakarrik direnean.

50. Artikulua.

Gidariak beharturik daude hauek egitera:

- a) Ibilgailuaren barrualdea aztertzea, bidaiariak ibilgailua utzi bezain laster, eta orduantxe bertan emango dizkiete, ahal izanez gero, ahaztuta utzitako gauzak. Osterantzean, objektu horiek udaltzaingoan utziko dituzte, alkatetzaren esku, 48 orduan, eta zerbitzua zer ordutan eman zuten adieraziko dute eta eramandako pertsona zer-nolakoa zen, eta udaltzaingoan errezibu bat egingo dute jakiteko zer objektu utzi duten.
- b) Zerbitzua ematera, justifikatutako arrazoiak galarazten ez duenean.
- c) Lesioren izan edo istripua izan duten pertsonak eramatera; eramatearen ondorioz ibilgailua kalteturik izanez gero, kalte horiek lesioa izan edo istripua izan dutenen kontura joango dira.
- d) Autoak dituen jarlekuei dagokiena baino pertsona gehiago ez onartzera, eta ez da kontuan hartuko jarlekua hartzen dutela, ondorio hauetarako, bidaiarien besoetan edo belaun gainean eraman eta 4 urtetik beherako haurrek.

51. Artikulua.

Gidariek debekaturik daukate:

- a) Tarifaren arabera dagokiona baino diru gehiagoa eskatzea zeharka, edozein aitzakia dela.
- b) Abiadura lehiaketak ezartzea.
- c) Autoak eskaintzea oihuka bide publikoan eta bidaiarienganantz jotzea edo beste pertsona batzuek ematea zerbitzua.
- d) Bide publikoan autoak garbitzea.
- e) Ibilgailuak bertan bera uztea, bidaiarien zain daudenean.
- f) Autoak uztea baimen gabeko lekuetan, alokatuak ez badaude edo zerbitzutik kanpo ez badaude.
- g) Bere ondoko jarlekuan beste pertsona bat eramatea, bidaiarien baimen barik.

52. Artikulua.

Geltokietako lehen lekua hartzen duten gidari guztiek obligazioa izango dute, edozelako istripu larria edo hondamendia gertatzen denean, berehala joateko istripu lekura, eta agintarien aurrean eskainiko du bere burua, bere zerbitzuak behar izanez gero.

53. Artikulua.

Orokortasunez, debekaturik dago autoa alokatzea gaixotasun kutsakorrek dituztenei, larrienak izan edo ez, beti ere gidariak horiek dituela baldin badaki.

Zerbitzu publikoaren ibilgailu baten gidariak, inguruabar berezi-bereziengatik, gaixotasun kutsakorrek eragindako pertsonak eraman baditu, desenkusaezinezko obligazioa du adierazteko alkatetzari zerbitzu hori ematen amaitu bezain laster, eta alkatetzak ibilgailua berehala desinfektatzeko aginduko du, eta ibilgailua ezingo da erabili desinfektazioa amaitu arte. Zerbitzua ematea eskatu duen pertsonaren kontura joango dira sortzen diren gastuak.

54. Artikulua.

Alokatutako ibilgailua aldi baterako uzten dutenean bidaiariak, eta horiek etorri arte itxaron behar badute gidariak, berme moduan egin duten ibilbidearen zenbatekoa eskatu ahal izango diete, gehi ordu erdi itxaroten hirigunean, eta ordubete hirigunetik kanpo aire libreko leku batean; aldi hori agortutakoan, ez dira zerbitzura loturik egongo.

55. Artikulua.

Gidariak itxaron behar badie bidaiariei iraupen mugatuko estazionalaketan, erreklamatu ahal izango die horiek egin duen zerbitzuaren zenbatekoa, eta ez du zerbitzua prestatzen jarraitzeko obligaziorik izango.

56. Artikulua.

Istripu edo matxura baten ondorioz zerbitzuarekin ezin badu jarraitu, bidaiariak agente batek esku hartzeko eskatu ahal izango du benetakoa den egiaztatzeko, eta zerbitzuaren zenbatekoa ordaindu beharko du, matxura edo istripua izan den unera arte.

57. Artikulua.

Istripurik izanez gero, istripua sortu duen gidaria saiatuko da gelditzen, harrapatutakori laguntzen eta bere autoa erabiltzen, asistentzia jaso behar duen lekura eramateko.

3. Sekzioa – Diziiplina araubidea

58. Artikulua.

Erregelamendu honetako arauak haustea honela hartuko dira: hutsegite arinak, larriak eta oso larriak.

59. Artikulua.

Hutsegite arinak izango dira, hauek:

- a) Norbere garbitasuna ez zaintzea.
- b) Ibilgailuaren barne edo kanpoko garbitasuna ez zaintzea.

60. Artikulua.

Hutsegite larriak izango dira:

- a) Lau hutsegite arin egitea bi hilean edo hamar hutsegite urte osoan.
- b) Aste baten geltokietara ez joatea, justifikatutako arrazoi barik.
- c) Zerbitzuak egiteko, behar barik distantzia handiagoak egitea.
- d) Ibilgailua zerbitzuan jartzea, behar bezalako egoeran egon barik.
- e) Jendearekin harremanetan hitz edo zeinu zatarrak erabiltzea, eta mehatxuak egitea, edo beste ibilgailu batzuetako bidaiari edo gidariekin hitz edo zeinu zatarrak erabiltzea.
- f) Arrasate udalerrikoak ez diren lekuetan hartzea bidaiariak.

61. Artikulua.

Hutsegite oso larriak izango dira:

- a) Eskatu zaion zerbitzua eman barik uztea bidaiaria, justifikatutako arrazoiak ez badago behintzat.
- b) Lau hutsegite larri izatea urte baten.

- c) Edanda doala ibilgailua gidatzea.
- d) Ibilgailuan ahaztuta utzitako edozein objektu edukitzea, horren berri eman barik agintariei hurrengo 24 orduetan.
- e) Zirkulazio Kodeak oso larritzat kalifikatutako arau haustea, bai eta behin eta berriro bete ez izana halako kalifikazioa ez duten Kode horren arauak, eta gai horietan alkatetzaren aginduak bete ez izana behin eta berriro.
- f) Gehiegi kobratzea erabiltzaileei edo baimendu baino tarifa txikiagoak kobratzea.
- g) Erregelamendu honek aipatzen duen lanbidean jardutea dela-eta Kode Penalak doluzko kalifikatutako delituak egitea.

62. Artikulua.

Santzio hauek ezarriko dira:

- a) Hutsegite arinak:
 - Kargu hartzea.
 - Lizentzia edo gidatzeko baimena etetea 15 egunera arte.
 - 1.000 pezeta arteko isuna.
- b) Hutsegite larrietan:
 - Lizentzia edo gidatzeko baimena etetea hirutik sei hil arte.
 - 5.000 pezeta arteko isuna.
- c) Hutsegite oso larrietan:
 - Lizentzia edo gidatzeko baimena etetea urtebete arte.
 - Lizentzia edo gidatzeko baimena behin betiko kentzea.
 - 10.000 pezeta arteko isuna.

Kasu guztietan santzio hau izango dute, behin betiko gidatzeko baimena kentzea, eta gidaria lizentziaren titularra izanez gero, aurreko artikuluen c), e) eta g) ataletan zehaztutako arau haustea.

63. Artikulua.

Hutsegiteak eta santzioak adierazteko baino ez dira, eta Udalak arauz handitu ahal izango ditu, egokitzen jotzen duen eran.

64. Artikulua.

Gidatzeko baimena edo lizentzia behin betiko kentzearen santziora izan ezik, Udalak jarriko baitu, gainerakoak Alkatetzak ezarriko ditu, eta edozelan ere interesdunak audientzia tramitea izango du.

65. Artikulua.

Aurreko artikuluetan ezarritakoaren kalterik gabe, hala badagokio, erantzukizun zibila eskatu ahal izango diete, erantzukizun penala ere bai, ibilgailuen jabeek, Erregelamendu honetan datozen arauak hausteagatik.

XEDAPEN SUPLETORIOA

Erregelamendu honetan aurreikusten ez den guztirako, martxoaren 16ko 763/1979 Dekretuak onartuta automobil arinetan Garraioen Hiri eta Hirien arteko Zerbitzuen Erregelamendu Nazionalen xedatzen denari lotuko zaio; halaber, indarrean dagoen Zirkulazio Kodeak ezartzen duen aldean.